



IKASTETXEA	AIXERROTA BHI	KODEA	015109
Arloa/ Irakasgaia	LUR ETA INGURUMENAREN ZIENTZIAK	Zikloa / Maila	Batxiler 2
Irakasleak	Iratxe Gonzalez	Ikasturtea	2015~16

HELBURUAK	EBALUAZIO - IRIZPIDEAK
<p>1.- <u>Azalpenezko eskemak eraikitzea, Lurraren eta Ingurumenaren Zientzietako kontzeptu, teoria eta eredu garrantzitsuak eta orokorrak erlazionatuz, gai honen garapenaren ikuspegi orokorra izateko, eta natura-ekosistemen funtzionamendua eta haien giza-sistemekin duten interakzioa interpretatzeko.</u></p> <p>2.- <u>Ikerketa txikiak egitea, banan-banan eta lankidetzan.</u> Horretarako, zientzien berezko estrategiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, ingurumen-intereseko egoerei era kritikoa eta testuinguru egokian ekiteko, eta lan zientifikoa probazkoa eta sormenezkoa dela onartzeko.</p> <p>3.- <u>Lurraren eta Ingurumenaren Zientzien ezagutzak erabiltzea hainbat testuingurutan,</u> eguneroko egoeretan zientzia horiek teknologiarekin, gizartearekin, ekonomiarekin edo kulturarekin dituzten erlazioak aztertuz, herritar gisa parte-hartzea izateko gizadiak aurre egin behar diren arazoak konpontzeko hartu behar diren erabakietan, eta gizarte-ingurunea eta ingurumena kontserbatzen, babesten eta hobetzen laguntzeko; hitz batean, etorkizun iraunkorra eraikitzeko.</p> <p>4.- <u>Zientzia hau etengabeko eraikitze-prozesuan dagoela onartzea, horretarako, elkarren aurkako hipotesiak eta teoriak</u></p>	<p>1.- <u>Ea azalpenezko eskemak eraikitzen dituen, Lurraren eta Ingurumen Zientzietako kontzeptu, teoria eta eredu garrantzitsuenak eta orokorrak erlazionatuz.</u></p> <ul style="list-style-type: none">- Ea Lurrak eta ingurumenak sistema gisa duten izaera azaltzen, eta, horretarako, haien konplexutasuna eta ingurumen-zientzien diziplinartekotasuna onartzen duen, eta sistema natural baten egitura adierazten duten eredu errazak egiten dituen.- Ea izaten dituen zorrotasuna, sormena, espiritu kritikoa, zalantza sistematikoa, malgutasuna eta irmotasuna eguneroko lanean.- Ea atmosferaren jarduera erregulatzailerak eta poluitzaile atmosferikoak pilatzeko arrisku handiena dakarten baldintza meteorologikoak eta topografikoak —ezaugarri fisiko eta kimikoetan oinarrituta—, bai eta haien kausak eta ondorioak azaltzen dituen, eta prebentzio- eta zuzenketa-neurriak adierazten dituen.- Ea gizakiak ziklo hidrológicoan esku hartzearekin zerikusia duten ingurumen-problema aztertuz, eta, horretarako, ura kutsatzeko arrazoi nagusiak jakiten dituen, kutsatze hori detektatzeko tresna kimiko eta biologikoak erabiltzen dituen, eta bizitzaren garapenerako zein giza kontsumorako dituen ondorioak ebaluatzen dituen.- Ea kritikoki ebaluatzen duen gizarteek ura nola erabiltzen duten, eta ea proposatzen duen prebentzio- zein zuzenketa-neurriak.- Ea Lurraren jarduera geodinamikoaren prozesu eta produktu nagusiak identifikatzen, eta, horretarako, geosferaren eginkizuna ezagutzen duen, gizadiarentzako baliabide-iturria den aldetik, eta arrisku naturalak haren ustiapenak



aztertzea eta alderatzea, eta aintzat hartzea nolako ekarpenak egiten dizkioten eztabaida zientifikoek giza ezagutzaren eboluzioari, pentsamendu kritikoa garatzeko, pertsonen prestakuntzan ingurumen-zientziak duten kultura-alderdia balioesteko, eta aintzat hartzeko haien oihartzuna gizartean eta ingurumenean.

5.- Informazio zientifikoa zuzen interpretatzea eta adieraztea, hainbat euskarri eta baliabide erabiliz. Terminologia egokia baliatuz, komunikazio zehatza izateko ingurumen-problemekin zerikusia duten gai zientifiko, teknologiko eta sozialei buruz.

eragindakoetatik bereizten dituen.

- Ea identifikatzen dituen jatorri naturaleko arriskuak eta, giza jarduerak eragindakoak, eta ea proposatzen duen prebentzio- zein zuzenketa-neurririk.

- Ea naturak gizadiarentzako baliabide-iturri mugatua den aldetik betetzen duen eginkizuna aztertu, baliabide berriztagarriak edo iraunkorrak ezin berrizta daitezkeenetatik bereiztu, eta giza jardueren ondoriozko ingurumen-arrisku eta -inpaktuak zehazten dituen.

- Ea ekosistema natura-sistema interaktibo moduan interpretatzen duen, bai eta hartako materia-zikloak eta energia-fluxuak, eta, horretarako, aldaketak segidaren, autorregulazioaren eta erregresioaren ikuspegitik identifikatzea, eta aintzat hartzen dituen biodibertsitateak betetzen duen eginkizun ekologikoa eta nolako garrantzia duen han dauden baliabideak zentzuz erabiltzeak.

- Ea lurzorua eta itsasertzeko sistemaren garrantzi ekologikoa balioetsi eta, horiek arriskuan jartzen dituzten faktoreak identifikatu eta faktore horien eragina arintzeko neurriak proposatzen dituen.

- Ea hazkunde ekonomikoa eta garapen iraunkorra bereizi eta, horretarako, neurriak proposatzen dituen, baliabideak hobeto aprobetxatzeko eta banatzeko, inpaktuak gutxitzeko, arriskuak arintzeko eta ingurumen osasungarriagoa lortzeko planetako biztanle guztientzat.

2.- Ea ikerketa txikiak egiten dakien, banaka eta lantaldetan.

- Ea erabiltzen dituen lan zientifikoaren oinarriko estrategiak egokitutako eginkizunetan

- Ea hartzen duen parte egokitutako zereginetan, eta ea egiten dituen berak zuzenean eta taldean lan horiek.

3.- Ea Lurraren eta Ingurumenaren Zientzien ezagutzak erabiltzen dituen hainbat testuingurutan.

4.- Ea zientzia hau etengabeko eraikitze prozesuan dagoela onartzen duen, horretarako, elkarren



	<p><u>aurkako hipotesiak eta teoriak aztertzen eta alderatzen dituen, eta ea aintzat hartzen dituen nolako ekarpenak egiten dizkioten eztabaida zientifikoek giza ezagutzaren eboluzioari.</u></p> <p>5.- <u>Ea informazio zientifikoa zuzen interpretatzen eta adierazten duen, hainbat euskarri eta baliabide erabiliz.</u></p> <ul style="list-style-type: none">- Ea identifikatzen dituen, ingurumenari buruz informazioa ematen duten tresna nagusiak eta aplikazioak- Ea lan dokumentalaren eta/edo esperimentalaren emaitzekin zerikusia duten monografiak eta txostenak hizkuntza zientifiko egokia erabiliz lantzen dituen eta, horretarako, hainbat iturritako testuak, eskemak eta adierazpen grafikoak erabiltzen dituen, hainbat formatutan erabili ere.
--	---

EDUKIEN SEKUENTZIA (denbora –tarteka; unitate didaktikoa, proiektua; ikaskuntza-nukleoa edo beste moduren batera antolatuta)

1. EBALUAZIOA

1.- Ingurumena eta ingurumenari buruzko informazio-iturriak.

2.- Geosfera.

- Barne-geodinamika. Arrisku bolkanikoa eta sismikoa
- Kanpo-geodinamika. Arriskuak.
- Geosferaren baliabideak, inpaktuak, erabilera iraunkorra.
- Ebaketa geologikoak

(Eduki komunak)

2. EBALUAZIOA

3.- Kanpo-sistema fluidoak eta haien dinamika.

- Hidrosferaren ezaugarriak eta prozesuak. Hidrosferaren inpaktu eta arriskuak.
- Atmosferaren ezaugarriak eta prozesuak. Klima eta mapa meteorologikoak. Atmosferaren inpaktu eta arriskuak.



(Eduki komunak)

3. EBALUAZIOA

4.- Energia baliabide eta arazoak

5- Ekosfera. Ekosistemak.

6.- Interfaseak

7.- Ingurumen kudeaketa. IIE. Lurraldearen antolaketa.

(Eduki komunak)

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

-Klase magistralak eman; azalpenak, transparentziak, diapositibak, bideoak, argazkiak, egunkariak, aldizkariak edo web orrialdeko informazioa erabiliz.

-Ariketak egin

-Mapa meteorologikoak eta ebaketa geologikoak landu.

-Ingurumen arazo edo kontzeptuei buruz interneten (edota iturri idatzietan) argibidea bilatu.

-Bideoak eta animazioak.

-Testu zientifikoak landu

-Ahozko aurkezpenak

-Irteera.

EBALUAZIO TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]

**KALIFIKAZIO
-IRIZPIDEAK**

[ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]

-Azterketa (Selektibitateko azterketa ereduak)
Kontzeptuak bereganatu eta ulertzea, arrazonamendu eta dedukzioak egitea, hizkuntza zientifikoa erabiltzea.

%80
Ebaluazio bakoitzean bi azterketa. Bien mediaren gutxieneko nota 5 izan behar da.

Ebalualdiko nota



<p>-Ariketak, aurkezpenak, lanak -Lan monografikoak -Koadernoak, fitxak, ahozko zuzenketak -Eguneroko kontrola irakasle koadernoan: partaidetza, puntualitatea, epeak errespetatzea, inplikazioa, arreta, klasekideenganako/irakaslearenganako jarrera, txukuntasuna, materiala, lanerako jarrera.</p>	<p>kalkulatzeko, gai bakoitzak balio desberdina izan dezake.</p> <p>%20</p>
--	---

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena,errekuperazio-sistema...]

- Ebalualdi bakoitzean bakarrik berreskuratuko da gainditu ez den atala.
- Ebalualdietako berreskurapenaren nota, gutxienez 5 izango da gainditu ahal izateko.
- Ebaluazioan zehar burututako azterketaren zuzenketa egingo da.
- Nota hobetzeko aukera dago norberak presta ditzakeen eta gaiarekin erlazionatutako aurkezpen txikiekin (oinarri zientifikoaren garrantzia kontuan).

OHARRAK